SAN TOMAS EGUNA TXISTORRA ARTEAN

Azokarekin eta txistorra-jatearekin ospatuko dute etzi Abaltzisketan San Tomas Eguna ›4

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** .info

Osteguna
2008-12-18

VI.URTEA 1.587.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Loatzo musika eskolakoek alaitu zuten Kultur Astea; gaur, mahai ingurua egingo dute, euskal kirolaren inguruan. N.U.

MUSIKAREKIN EKIN DIOTE ALTZOKO KULTUR ASTEARI

ALTZO Atzo eman zioten hasiera Loatzokoen emanaldiarekin; gaurkorako, 'euskal kirolarien zainak' mahai ingurua antolatu dute 5

Eskolak Euskaldundu ekimenaren elkarretaratzea. E. EZEIZA

Hezkuntza lege berriaren aurka, elkarretaratzea

TOLOSA Eskolak Euskaldundu herri ekimenaren iritziz, «hezkuntza proposamena atzerakoia da» 2

UXUE ALBERDI
IDAZLEA

«Probokatu egin behar dugu irudimena mugatua baita»

TOLOSA Hitzaldia emango du gaur Kultur Etxean Galtzaundik antolatuta 3

Eguberrietarako egitarau oparoa antolatu dute haur eta gaztetxoentzat

TOLOSA Udaleko Gazteria eta Kultura sailek antzerkiak, zinema, haur parkea,... prestatu dituzte 7

Urteko azken azoka berezia etzi ospatuko dute hiriko kale nagusietan

Ekonomia » Ohiturari jarraituz, Eguberrien atarian, Gabonetako Azoka Berezia egingo dute hainbat produkturekin.

ERREDAKZIOA

Gabonak, opariak egiteko eta jasotzeko garaia izaten da, eta jende askok dagoeneko erosita izango baditu ere, beste hainbat, oraindik zer erosi ez dakiela egongo da. Bestalde, zenbait, urtero Tolosan ospatzen den Gabonetako azokaren zain egongo dira. Larunbat honetan, hau da, hilaren 20an izango da, eta honek emango dio hiriko aurtengo Azoka Berezien egutegiari bukaera.

Hiru gune ezberdinetan kokatuta egongo dira postuak: San Frantzisko ibiltokian, Triangulo plazan eta Plaza Zaharrean. Honetaz gain, larunbateroko merkatua ere hor izango da Zerkausian, Berdura Plazan eta Euskal Herria plazan.

San Frantzisko ibiltokian era guztietako jakiak izango dira salgai: ahatekiak, kontserbak, gozoak, gaztak, eztiak... Jakiez gain, artisauek landutako lanak ere izango dira artxibo aurrean jarritako postuetan. Bestalde, barazki eta fruta ugari izango dira Trianguloan. Gainera, Tolosako dendariek ere kalera aterako dituzte beraien produktuak: jostailuak, oparitarako gaiak, kosmetika naturala, zeramika...

Odolki lehiaketa

San Blas elkartearen laguntzarekin, Odolki lehiaketa izango da Triangulo plazan. 09:00etan, lehiaketan parte hartuko dute harategietako odolkiak sutan jarriko dituzte. Oraingoz, hamahiruk eman dute izena, tartean, eskualdeko hiruk: Tolosako Luis Mª Garikano eta Muñagorri harategiek eta Leaburuko Mahalak. Dena den, oraindik izena emateko aukera dago. Horretarako interesatuek 943 69 75 21 zenbakira deitu beharko dute bihar eguerdia baino lehen. Larunbatean, 13.00etan emango du jakitera epaimahaiak irabazlearen izena. Bitartean, goiz guztian zehar, iazko odolki lehiaketako irabazlearen, Ordiziako Jabier Otegiren, odolkiak dastatzeko aukera izango da.

Gabonetako azokaren baitan, Odolki Txapelketako jokatuko da. ASIER IMAZ

Oreinak eta euskal txerriak

Plaza Zaharrean, alde batetik, oreinak izango dira ikusgai, eta bestetik, euskal txerriak. Bestalde, hauen bien produktuak ere izango dira salgai.

Esklerosi Anizkoitza

Esklerosi Anizkoitzaren Nazioarteko Eguna ospatzen da gaur, hori dela eta, honi lotuta, zenbait ekintza antolatu ditu datozen egunetarako Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkarteak. Tolosan, larunbatean Gabonetako azoka egingo dela aprobetxatuz, Zerkausian postu berezi bat jarriko dute, gaixotasunaren inguruko informazioa banatu ahal izateko, hurbiltzen direnen artean.

HITZAren azken produktuak ere azokan

Azoka » Eskualdeko egunkariak bere txokoa izango du Gabonetako azoka berezian; produktu interesgarriak izango dira.

ERREDAKZIOA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAren azken produktuak ere Gabonetako azokan izango dira. Egunkariak postu berezi bat jarriko du Tolosako Merkatarien Elkarteak Triangulo plazan jarriko duen karpan.

Neguko arropa erosi ahal izango da besteak beste, hau da, jertseak, bufandak, zirak, elastikoak, aterkiak... Hauez gain *Hitzalean* Euskal Herriko hainbat idazlek idatzitako ipuinez osatutako liburua izango da salgai. Egitasmo honetan parte hartu dute ere eskualdeko hainbatek: Patziku Perurenak, Joxe Mari Iturralde, Arantxa Iturbek, Juan Kruz Igerabidek eta Mikel Olanok. Bestetik, duela egun gutxi Galtzaundi Euskara taldeak eta HITZAK elkarlanean argitaratutako *1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean* liburua eskuratzeko aukera izango da.

Joxemi Saizarrek eta Mikel Errazkinek egin duten liburuan Gerra Zibilak eta lehen frankismoak gurean izan zuen eragina eta ondorioak aztertzen dituzte, datu ugarirekin eta elkarrizketekin.

Aipatzekoa da gainera, HITZAren postuan ez ezik, argitalpen hau erakustekoetasaltzekojarriko den postu berezi batean ere eskuratu ahal izango dela larunbatean. Dena den, etzikoan liburua eskuratzerik ez duenak, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAren eta *Galtzaundi*ren egoitzan erosi ahal izango du. Baita, liburu dendetan ere. Argitalpenaren salneurria 18 eurokoa da, eta harpidedunentzat berriz lau euro merkeago, 14 euro.

Isidro Larrañagako ikasleen saioa, bihar

Musika » 28. aldiz, Gabonetako kontzertua eskainiko dute Leidorren; 100 lagun inguru igaroko dira eszenatoki gainetik.

ERREDAKZIOA

Isidro Larrañaga Musika Eskolakoek Gabonetako kontzertua eskainiko du bihar, Leidor antzokian. 19:30ean hasiko den emanaldian musika eskolako ikasleek eta Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrakoek hrtuko dute parte. Denera, 100 lagun inguru ariko dira eszenatoki gainean.

Trikitixa, gitarra, bateria, piano eta akordeoi jotzaileak izango dira beraz, Leidorren. Biharkoa, eskolak data hauetarako antolatzen duen 28. jaialdia da. Honekin, urtean zehar gaztetxoek ikasten dutena eta egiten duten lana jendeari erakutsi nahi diote. Edonor joan daiteke emanaldiaz gozatzera, gainera, sarrera doakoa da.

Isidro Larrañagak, eskolako zuzendariak, azaldutakoaren arabera, Leidorren abesti oso ezagunak interpretatuko dituzte. Honetaz gain, Gabonetako kantuak ere entzun ahal izango dira. Azkenik, Akordeoi Orkestrak *Hungria* pieza joko du.

Beti onak jatetxea
Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia
✆ 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Hezkuntza lege berriaren aurka

HEZKUNTZA ● Eskolak Euskaldundu Herri Ekimenak deituta elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean Triangulo plazan. Ekimenaren antolatzaileek azaldutakoaren arabera, «Gasteizko parlamentuan hezkuntza lege berri baten proposamena egingo du, eta proposamen horren irakurketa oso atzerakoia» dela deritzote. Bestalde, beraien hitzetan, «gaur egun, Euskararen Legea onartu eta 26 urtera EAEn dugun egoerari begiratuz ez gaude pozik egoteko moduan: hizkuntza ereduen politikak porrot egin du, bereziki A eta B ereduek. Ikasleen ia erdiak euskara ezagutu gabe amaitzen du derrigorrezko hezkuntza. E. EZEIZA

«Irudimena mugatua da, beraz, probokatu egin behar dugu»

UXUE ALBERDI › Idazlea

Literatura » Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, hitzaldia izango da gaur, 20:00etan, Kultur Etxean.

IÑIGO TERRADILLOS

Literaturari buruzko hitzaldia izango da gaur, Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan. Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) izango da hizlaria.

Zeren inguruan ariko zara?

Aulki bat elurretan liburuari buruz ariko naiz, eta literaturari buruz orokorrean. Liburua adibide bezala hartuz, ideia batetik abiatuko naiz, hau da, guztion ingenioa edo irudimena mugatua dagoela. Probokatu egin behar da irudimena, eta horretarako hainbat teknika ere emango ditut.

Esaterako?

Asko daude. Adibidez, Loturarik ez dauzkaten hitzak har ditzakezu, eta horti abiatu istorioa sortzeko. Txanogorritxo, basoa, amona, otsoa... hitzak elkarrekin jarrita ez ditugu arrarotzat jotzen, guztiok ezagutzen baitugu ipuina, baina

HITZA

segida horri beste bat erantsiz gero, helikopteroa, esaterako arraroa egingo litzaiguke; hori lotuz hasiko ginateke sortzen. Beste teknika bat, *demagun* aurretik jartzea da, hau da, gertatu den zerbait aldatu nahian edo. Beste teknika bat ideietatik irudia sortzea litzateke. Asko daude, eta horien inguruan ariko naiz.

Liburuan erabilitako teknikak, beraz.

Liburua intuizioz idatzia izan zen, ez bainekien libururatuko zirenik ipuinak. Halaber, badira etorriak eta ekarriak izan diren ipuinak, izan ere, Suedian beka batekin nintzela idatzi nuen erdia, baina beste erdia hemendik, beraz, han kokatu behar nuen neure burua, nolabait, edo Suedia hona ekarri. Dena den, etorrian ez dut gehiegi sinisten, momentuan etorri daiteke ideia edo ipuin bat, baina aurretik landu duzulako.

Nori zuzendua dago hitzaldia?

Edonorentzat da, gaiari buruzko interesa dutenentzat. Ni saiatuko naiz mundu honek sortzen didan zirrara islatzen, letrek sortzen didaten erakarpena, alegia. Eta horregatik, teoria guztiak jolas edo anekdota moduan kontatuko ditut.

'Aulki bat elurretan' ipuin liburua eta gero, eleberriarekin ari zara orain.

Bai, eta lehen eleberria idaztearen esperientzia nolakoa izan den ere kontatuko dut. Joseba Jaka saria eskuratzearekin etorri da liburua. Kostako herri batean kokatzen da, eta helduak diren 4 herritar dira protagonistak. Lehen zatian gaur egun dauzkaten elkarrizketak azaltzen dira. Bigarrenean, pertsona hauek umeak eta gazteak direnean nola ziren islatzen da. Nobela psikologikoa da.

'14 kilometros' filma, Etorkinen Egunean

ERREDAKZIOA

Etorkinaren Nazioarteko Eguna da gaur, eta hori dela-eta hainbat ekitaldi antolatu ditu eskualdeko Ereite elkarteak aste osoan. Gaurkoan, *14 kilometros* filma izango da ikusgai Leidor aretoan, 19:30ean. Violeta, Buba eta Mukela gazte afrikarren bitartez, Saharan zehar egindako ibilbide luze eta arriskutsua islatzen da. Komunikabideetan erakusten ez duten egoera erakutsi nahi du filmak, izan ere, «telebistan Kanariar irletara behin eta berriz nola iristen diren ontzietan ikustera ohituta gaude, sentsibilitatea galtzeraino». Film honek erronka gainditu zutenei eta porrot egin zutenei omenaldia izan nahi du, bizi direnei eta siakeran bizia galdu zutenei.

Bestalde, bihar arratsaldean, ipuin kontaketa saioa izango da Idoia Sanchezekin, Kale Nagusiko 16an dagoen Sartu ta Sortu tailerrean. Halaber, larunbatera arte ikusgai dago Kultur Etxean, Dauri Alcalaren margoen erakusketa.

Gaur musika, eta bihar antzerkia Bonberenean

ERREDAKZIOA

Zura eta Sorene Loene taldeen kontzertuak izango dira gaur, 22:30etik aurrera Bonberenean. Eta bihar, berriz, antzerkiak hartuko du protagonismoa, Tik Tak antzerki tailerreko aktoreak izango baitira, 22:30ean.

Heriotza jorratzen duten bi antzezlan taularatuko dituzte. *Aho itxia* lanean beilategi batean kokatuko dira protagonistak. Gizon bat hil den egun berean, torero bat ere hil da. Nahasketa horrekin, betiere umorea ardatz dela, hildakoaren inguruko jendeak heriotz hori nola bizi duen islatuko dute.

La sed izena du bigarren lanak. Carmen Resinoren antzezlan honetan bi ahizpen egoera kontatzen da. Bietako bat hilzorian dago, aulkian, eta egarri da. Bestea erotuta dago. Bakardadea eta isolamendua bezalakoak islatzen ditu.

Laskorain Goikoako aparkalekua egiteko Aldundiaren diru laguntza

Azpiegiturak » 450 ibilgailurentzat lekua izango du, 10.000 km2ko lursailean; 115.948 euroko laguntza onartu dute.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapen Iraunkorreko Departamentuak 800.000 euro xedatu ditu Tokiko Agenda 21eko 32 udalek aurkeztutako 41 proiekturentzat. Horien artean, Tolosakoa nabarmentzen da, duen aurrekontuagatik.

Bertan, Disuasio aparkalekua egiteko Laskorain Goikoan, Foru Aldundiak 115.948,50 euro jarriko ditu. Helburua da 450 ibilgailurentzat azaleko aparkaleku bat egitea 10.000 m2ko lursailean. «Aparkalekuari esker errazagoa izango da garraio publikoarekin (Renferekin batez ere) eta etorkizuneko garraiobide askotako geltokiarekin koordinatzea». Aparkalekuak hiru sarrera izango ditu ibilgailuentzat, beste lau sarrera oinezkoentzat eta oinezkoen pasabide bat aparkalekuaren bi sektoreen artean. Espaloi bat ere egingo da, biribilgunearen eta Etxe Alaienaren artean daudenak lotzeko.

Tolosakoaz gain, Aldundiak Abaltzisketako, Adunako, Anoetako, Asteasuko, Baliarraingo, Berrobiko, Berastegiko eta Ibarrako Udalek aurkezturiko proiektuak ere emango ditu aurrera Tolosaldeari dagokionez.

Laburrak

Beotibar Zesta Puntako kadeteek finala, etzi

TOLOSA ● Beotibar Zesta Punta Elkarteko kadeteak Gipuzkoako Txapelketaren finalerako sailkatu dira. Etzi jokatuko dute finala, Zumaiaren aurka, 10:30ean, Donostiako Carmelo Balda pilotalekuan.

Aparteko Osoko Bilkura egingo gaur, 08:00etan

TOLOSA ● Aparteko Osoko Bilkura egingo dute gaur, 08:00etan hasita. Apatta Erreka fitxaren aldaketa hasieraz onartzea izango da jorratuko duten gaia.

Mendi irteera eta babarrun jatea igandean, Alpinokoek

TOLOSA ● Urtea amaira denez, beti bezala, Alpino Uzturre elkarteak urteko azken mendi ibilaldiarekin batera babarrun jatea egingo du, aspaldiko ohitura mantenduz 50 urte bete dituen hain urte berezian. Igande honetan 08:30ean abiatuko dira Santa Klaratik eta ibilaldia Ordizia-Mantxinbenta izango da, 4 ordu ingurukoa. Murumendi eta Txarabeltz mendiak igoz. Ondoren, babarrun jatea egingo dute, Añota sagardotegian. Izena elkartean edo 943 65 27 89 zenbakian eman ahalko da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta **Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

San Tomas, azokarekin eta txistorra-jatearekin ospatuko dute

Kultura » Abaltzisketan gurasoek eta Txalburu eskolak antolatuta feria izango da bihar eta etzi Amarotzen txistorra-jatea izango dute.

NEREA URBIZU

Abaltzisketan San Tomas Eguna ospatzeko ohitura daukate urtero. Aurten ere, gurasoen eskutik eta eskolaren laguntzarekin azoka bat prestatuko dute plazan, bihar goizean zehar. Urtero eskolaren bat gonbidatzen dute egun honetan, eta oraingoan Amezketakoak eta Ilaztegietakoak igoko dira.

Igandean da San Tomas, eta eroso egoa delako, bihar antolatu dute guztia. Egun honetan plazaren bueltan zazpi bat postu jartzen dituzte produktu desberdinez osatuta: barazkiak, marmeladak, gozoak eta postreak, animaliak, xaboi naturalak, bainikak, fruitu lehorrak... Eskolako ikasleen eskulanak ere ikusgai izango dira, aurten egiten joan direnak, hain zuzen ere. Horrez gain, ikasleak, azokan dauden produktuen izenak eta prezioak jartzeaz arduratuko dira. «Elkarrekin egindako lantxoak dira guztiak», Abaltzisketako eskolak argitu bezala.

Ez dira faltako ez txistorra pintxoak, ezta taloak ere, San Tomas Egunak agindu bezala. Herriko gurasoek prestatutakoak dira eta plazan izango dira hauek ere. Hauekin batera, sagardoa eta ardoa ere dastatu ahal izango da.

Esan bezala, azoka goizean zehar egongo da plazan: 10:00etatik 13:30a bitarte, gutxi, gorabehera. Bukatu ondoren, Abaltzisketako guraso, irakasle eta ikasleek elkartean bazkalduko dute. Gurasoek ilusio handiz prestatzen dute bazkari hau urtero.

Haur eta irakasle gehienak arzain-andrez eta artzain-gizonez jantzita egongo dira eta postuetan ikusiko diren kolore eta produktuek atonduko dute beste guztia.

Abaltziketako plazan azoka egiten dute urtero: taloak eta txorixoa jan daitezke ere. N. URBIZU

Amarotzen etzi

Etzi, Amarozko Auzo Elkarteak San Tomaseko barrikotea antolatu du. «Helburua bizilagunen arteko harremanak bultzatzea da». Horregatik, txistorra, gaztainak, sagardoa eta ardoa izango dira parbularioko estalpean, 19:00etan hasita.

Triangulon Nikaraguaren alde

Goizean, Amarozko elkartekoek Tolosako Azoka Berezian postu bat jarriko dute Nikaraguaren alde. «Produktu nikaragua dituzu eta elkartasun txorixoa» izango da ere. Diru hau Nikaraguara bidaliko dute.

Amarotzen, barrikotea izaten da, bizilagunak bilduz. HITZA

txokoa h
sarrera parea zozketan
deitu eta eskuratu!
Asteartea • abenduak 23
20:30ean
Tolosako Leidorren
Tolosako Orfeoiak eskainita
Tolosako Orfeoia Orfeón de Tolosa
Gabonetako Kontzertua
2 liburu zozketan
deitu eta eskuratu!
1936ko Gerrako Oroitzapenak, Tolosaldean eta Leitzaldean
HITZAren harpidedunentzat abantailak
Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: 943 65 56 95

LIBURUA SALGAI
Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €
Eskaintza bereziak:
5 liburu 80€ | 10 liburu 140 €
Salmenta puntuak:
• Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bulegoetan.
• Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudenden.
• Ibarrako Lurdes liburudendan.
• Villabonako Basajaun liburudendan.
1936KO GERRAKO OROITZAPENAK
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN
hitza

Kultur ekitaldien baitan, 'Euskal kirolaren zainak' mahai ingurua izango da

Altzo » Gaur Maider Mendizabal, Aimar Irigoien eta Mikel Astarloza izango dira, tartean, jendearen galderak erantzuten.

N. URBIZU

Kultur Asteak antolatzeko ohitura dago herri guztietan, eta baita Eguberriak ospatzeko ere. Bada, Altzon, biak batera ospatzen dituzte ia. Kultur ekitaldiak antolatu dituzte eta honen baitan Olentzeroren etorrera ere izango dute. *Olentzerotan jakinmine*z 12. urtez antolatu dute.

Gaur, *Euskal kirolaren zainak* izeneko mahai ingurua izango da eta luzuzko kirolariak izango dira bertan: Aimar Irigoien harri-jasotzailea, Mikel Astarloza txirrindularia eta Maider Mendizabal pilotaria. Gonbidatu gehiago ere izan behar ziren baina azken momentoan ezin izan dute: hauek Leire Olaberria eta Mikel Aranburu ziren. Hauek udaletxeko batzar aretoan bilduko dira 19:30ean.

Luxuzko hiru kirolari, gaur

Gaurko mahai inguruan gonbidatutako kirolariek haien esperientziak kontatuko dituzte, etakirolak suposatu dien sakrifizioa ere. Jendeak parte hartzeko aukera izango du ere. Eskolako ikasgela bakoitzak ere galdera bana egingo die hirugonbidatuei.

«Zerbait txukuna egin nahi genuen aurten: herri txikia da Altzo, baina zerbait polita egin genezakela ikusten genuen: haurrentzako, gaztee ntzako»... Herritar batek moderatzaile lana egingo du.

Loatzo musika eskolakoen saioak ireki zuen atzo Kutur Astea Altzon. N. URBIZU

Biharko *Zaborrarekin zer egin* hitzaldi interesgarria antolatu dute. 19:30ean izango da eta Imanol Azpirotz albaitaria eta San Markos mankomunitateko lehendakariordeak hideratuko du. Udaletxean bilduko dira ere.

Gaur Olentzero dator eskolara

Gaur goizean haurrek bisita berezi bat jasoko dute Imaz Bertsolaria Eskolan. Olentzero etorriko da asto baten gainean. Opariak ez dira faltako haur guztientzat.

EGITARAUA

- **Abenduak 18.** 19:30ean mahai inguruа: *Euskal kirolaren zainak*. Aimar Irigoien, Mikel Astarloza eta Maider Mendizabalekin. Udaletxeko batzar aretoan.
- **Abenduak 19.** 19:30ean *Zaborrarekin zer egin* hitzaldia. Imanol Azpirotzek hideratua.
- **Abenduak 20.** 16:00etan Kulkirekin haurrentzako jolasak frontoian. 19:00etan kale animazioa, kantuak... Elordi elkartetik hasita (Arozenatarrak taldea). 20:30ean, herri afaria taloekin, haragiarekin eta gaztainekin, kale antzerkikoekin batera. Elordi elkartean izango da.

Eguberrietako egitarau oparoa

Alegia » Gaur arratsaldean Loatzoko kontzertuarekin hasi eta urtarrilaren 5era arte antolatu dituzte ekitaldiak.

ERREDAKZIOA

Alegian urtero Eguberrietarako ekitaldi batzuk antolatzen dituzte. Gaurtik hasita urtarrilaren 5era arte izango dira gauzak. Protagonista izaguztietan, musika izango da. Gaur, esaterako, Loatzo musika eskolako ikasleek emanaldia eskainiko dute Kultur Etxean. Hauek 18:00etan hasiko dira.

Bihar, alditz, ipuin kontalari bat ariko da Udal Liburutegian, hau ere 18:00etan hasita. Datorren ostegunean, Eguberria da eta 11:15eko mezanagusian Txintxarri Abesbatzak abestuko du.

Kirolari ere egingo diote lekua Alegian eta hilaren 27an eta 30an pilota topaketak izango dira 16:00etan hasita. Finalak urtarrilaren 3an jokatuko dituzte, ordu berean. Hilaren 29an Xurdinek kontzertua eskainiko du arratsaldez.

Haurrentzako aproposa da emanaldi hau eta 17:30ean hasiko da.

Urtarrilaren 5ean 11:00etan umeen jolasak prestatu dituzte eta txokolatea hartzeko aukera izango da gero. Erregе Magoen etorreraren zain geratuko dira bukatzeko.

Kimetz
Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96
Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62
www.kimetz.eu

Hutsunea Betez izango da Urteko Billabonatarraren lehen saritua

Villabona » Irrintzi elkarteak sari berri hori sortzea erabaki du eta etzi emango dio sortu berri den emakumeen elkarteari.

IMANOL GARCIA

Villabonako Irrintzi elkarteak Urteko Billabonatarra saria sortu du eta lehenengo saria Hutsunea Betez emakumeen elkarteari emango dio. Irrintzitik azaldu dutenez, «horrelako saririk ez zegoen Villabonan eta pentsatu dugu martxan jartzea».

Urtero saria emateko asmoa dute eta urte horretan nabarmendu den billabonatarrari, pertsona bat, talde bat edo elkarte bat izan daiteke, saria emango diote. Baliteke hainbat urtetan egindako lanagatik nabarmendu den pertsona edo talde bati ere ematea hurrengo edizioetan.

Aurten lehenengo aldiz egin dute eta herrian sortu berri den Hutsunea Betez elkarteari ematea erabaki du Irrintziko zuzendaritza taldeak. «Nahiko argi izan dugu nori eman behar genion», azaldu dute Irrintzitik. «Beraien izenak azaltzen duenez, hutsune bat zegoen sektore bat bete dute». Genero indarkeriaren aurkako bilkurak egiteaz gain, «hainbat ekimen herriari irekiak antolatu dituzte eta Udala zein herritar gehiago inplikatzea lotu dute».

Saria etzi banatuko dute Irrintzi elkartean bertan, 13:30ean. Ekitaldi xumea izango dela azaldu dute sari emaileek. Oroigarria eman ondoren bazkaria egingo dute bai Irrintzi elkartekoek, bai saridunek eta baita Udaletik joango den ordezkariek.

Behar-Zanakoek, alde eta kontrako emaitzak

ERREDAKZIOA

Pasatu berri den asteburuan Gipuzkoako Txapelketako finalerdiak jokatu zituzten Behar-Zanako pilotariek. Ander Aranburuk eta Arkaitz Iraetak 22-21 irabazi zuten Oiartzungo bikotearen aurka 11-0 galtzen joan ziren arren. Hala, Oiartzunen jokatuko den itzuliko partidan irabaztea derrigortuta daude. Biikote hori dagoeneko bigarren mailara igo da.

Bestalde, Iñaki Lizasok eta Antton Pebetek partida bakarrera jokatutako beraien finalerdia 22-8 galdu zuten. Bergarako pilotalekuan jokatutako partidan, Esnal-Gorrotxategi bikote sendoa izan zuten aurkari eta Aginagako finalean bezalaxe, irabazi egin zuten. Lizaso-Pebetek ere mailaz igota, datorren denboraldian lehenengo mailan jokatuko dute.

Asteburu honetan ere partidak izango dira Amasako pilotalekuan. Bihar, 21:15ean hasita, hiru partida izango dira ikusgai. Lehen partidan Otaegi-Ezeizak jokatuko dute kadete mailan, ondoren Ordozgoiti-Inzak jubeniletan eta azkenik Artaza-Nazabal eta Otaño-Otaegi bikoteen arteko partida izango da ikusgai. Joan den astean, bigarren bikoteak 22-15 irabaztea lortu zuen.

Infantilen Banakako Txapelketan, Peru Labaka eta Jon Erasun infantilek final-laurdenak jokatuko dituzte etzi Amasako pilotalekuan 16:00etan hasita.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laburrak

Loatzo musika eskolako Gabonetako kontzertuak

MUSIKA Loatzo musika eskolako ikasleek kontzertuak ematen ari dira aste honetan. Gaur Alegian, Kultur Etxean, eta Villabonan, Gurea aretoan, izango dira emanaldiak, biak 18:00etan. Bihar Adunako elizan izango da emanaldia, 18:00etan ere.

Gabonetan kantatzen ateratzeko entsegua, bihar

ADUNA Muxkil elkarteak deialdi irekia egin du bihar 20:30ean Txulobi elkartean elkartzeko Gabonetan kantatzen ateratzeko entsegua egiteko. Ondoren afaria egingo dute elkartean bertan.

Anoetako Ikastolak urteko batzarra egingo du gaur

ANOETA Urteko batzarra egingo du gaur Anoetako Herri Ikastolak bere eraikinean. 19:00etan izango da lehenengo deialdia eta 19:30ean bigarrengo deialdia. 2007-2008 ikasturteko balantzea eta 2008-2009 aurrekontua, urteko plan pedagogikoa eta inbertsioak izango dira, besteak beste, jorratuko dituzten gaiak.

Eresargikoen Gabonetako kontzertua, etzi 19:45ean

VILLABONA Eresargi Abesbatzak Gabonetako ohiko kontzertua emango du etzi, 19:45ean, Jesusen Bihotza parrokian. Abesbatzak guztiei gonbidatzen diete bertara joatera. Bestalde, hilaren 24ean Amasa eta Villabonan abesten aterako dira. Egun horretan bilduko dirua Afrikako Mali herrialdearen beharretarako izango da.

Jesusen Bihotzako Gabonetako ekitaldiak

VILLABONA Jesusen Bihotza Ikastolaren Gabonetako ekitaldien baitan, gaur Mari Domingi joango da Txermingo ganbarara 11:15ean eta haurrek Olentzerori idatzitako gutunak jasoko ditu. Haurrek Gabonetako abestiak abestuko dizkiote eta berarekin egoteko aukera izango dute. Bihar Olentzero joango da Villabonako eraikinera 10:00etan. Ondoren, Zizurkilgo ikastolara joango da. Azkenik, San Tomas eguna ospatuko dute.

Atxulondoko burdinolaren istorioa

ZIZURKIL Liburuaren Astearen baitan Leire Zubeldiak idatzitako *Atxulondoko azken olagizona ipuina* kontatu zuen atzo Belen Azkaratek. Bihar, Teodoro Hernandorena VII. Ipuin Lehiketeko sari banaketa izango da 17:30ean eta ondoren *Made in Jabon* emanaldia: musika, umorea, magia eta xaboi burbuila erraldoiak. I. GARCIA

Anoetan eta Iruran Eguberrietako egitarau oparoa

Gizartea » Besteak beste, Anoetan ikastaroak antolatu dituzte eta Iruran ikusgai dago 'Ibailade' erakusketa Trinketean.

ERREDAKZIOA

Anoetan eta Iruran Eguberrietan ekitaldi eta ikastaro ugari antolatu dituzte. Esaterako Anoetan hainbat ikastaro dituzte egun hauetan egiteko eta izena emateko azken eguna gaur da. Udaletxean edo kiroldegian egin daiteke eta doan da.

Horrela, hilaren 29an eta 30an, 19:00etan talo ikastaroa egingo dute gazte eta helduentzat. Hilaren 23an (18:30-20:30) eta 30ean (10:00-12:00) barreterapia ikastaroa kiroldegian. Xake ikastaroari dagokionez hainbat aukera daude: hilaren 26an, 29an, 30ean eta 31n, orduro 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Hozpel kaleko udal lokalean egingo dira.

Beste ikastaroetako bat antzerkia izango da eta hau ere Hozpel kaleko udal lokalean egingo dute. Hilaren 23an eta 30ean 10:30etik 11:30era (4-5 urtekoak), eta 11:30etik 12:30era (6 urtetik aurrera). Gazte eta helduentzat hilaren 29an 19:30etik 21:00etara. Erlaxazio ikastaroa hilaren 23an (10:00-11:30) eta hilaren 29an (19:00-20:30), kiroldegian. Defentsa pertsonala, berriz, hilaren 22an (19:00-20:30) eta hilaren 29an (10:30-12:00) kiroldegian. Ekialdeko dantza ikastaroa hilaren 30ean izango da 16:00etatik 18:00etara, kiroldegian. Azkenik, aeropilates hilaren 29an 10:00etatik 11:30.era, hau ere kiroldegian.

Ekitaldiei dagokionez, hilaren 22rako irteera antoaltu dute, Errekaldeko Txiki Parkera, 11:00etatik 14:00etara. Prezioa 6 euroko da eta izena emateko epea gaur amaitzen da. Egun berean, Txoborro magoaren emanaldia, 18:00etan kiroldegian. Aurrera begira ere beste hainbat ekitaldi daude eta Udalak gogorarazten du liburutegia itxita egongo dela Eguberrietan.

'Ibailade' erakusketa

Iruran *Ibailade* erakusketa ikusgai izango da Trinketean hilaren 22ra arte. Bertan ibaiei buruzko informazioa agertzen da. Erakusketaren sustatzaileek azaltzen dutenez, ibaien inguruan «asko da oraindik egiteko dagoena; naturarenganako errespetua areagotzeko eta natura kontserbatzea sustatzeko, funtsezkoa da gizakion jarrerak eta kontzientzia aldatzea ingurumen hezkuntzako proiektuen bidez, esaterako, *Ibailde* proiektuaren eta antzekoen bidez».

Horretaz gain, eta besteak beste, bihar 21:00etan Zaharren Biltokian afari herrikoia antolatu dute, sagardoa eta saiheskiarekin. Ondoren hainbat artisten musika emanaldia izango da: Alberto Yustamante, Paul eta Borja, Borja-blues, Joselito... Hilaren 23an, 17:00etan elkartuko dira Gaztelekua apaintzeko Eguberrietako ikurrekin eta ondoren merienda egingo dute. Hilaren 24ean, 12:00etan Gazte Alaiak elkartean hamaiketakoa emango dute abesten aritutakoentzat. 19:00etan San Miguel Plazan jaiotza biziduna egingo dute eta Olentzeroren etorrera gabon-kantez alaituko dute.

Naziotasun Jardunaldien baitan, hitzaldiak gaur eta bihar

ERREDAKZIOA

Villabonako Bai Euskal Herriari herri ekimenak antolaturiko Naziotasun jardunaldien baitan, gaur hitzaldi bat izango da. Iñaki Egaña historialariak eta Mikel Luloaga herri ekimeneko kideak *Euskal nortasun ikurrak iraganetik etorkizunera* zuzenduko dute, 19:30etik aurrera Gurean.

Bihar ere izango da ekitaldirik, azkena hain zuzen ere. Inaxi Agirre eta Igone Agirreren eskutik, *Euskal Herria euskararen herria* hitzaldia izango da 19:30ean.

Kalitatezko Qa Fronton eta Oriarentzat

TOLOSA ● Gasteizko Artium museoan eginiko euskal turismoaren galan, Kalitatezko Qak banatu zituzten. Eskualdean ere Tolosako Fronton kafetegiak eta Oria hotelak jaso dute saria, Eusko Jaurlaritzako Industria, Komertzio eta Turismo sailburu Ana Agirre eta lehendakari Juan Jose Ibarretxeren eskutik. Oria hotelaren izenean Koro Mokoroa joan zen eta Frontonen izenean, berriz, Roberto Ruiz. Ziurtagiri honek urte askotako lanaren adierazlea da eta hainbat hobekuntza suposatuko ditu bi komertzio hauentzat, besteak beste, ekoizpen gastuen hobekuntza eta bezeroen kopuruaren hazkuntza. HITZA

Haur eta gaztetxoentzat egitarau oparoa prestatu dute Eguberrietarako

Tolosa » Antzerkiak, zinema, tailerrak, haur parkea... izango dira, besteak beste, herriko kultur guneetan.

ERREDAKZIOA

Eguberriak ate joka dira eta etxeko txikienentzat opor garaia da. Bi aste luze izaten dituzte ikastetxeko eskoletatik urrun. Beharrezkoa izaten da haientzat baina gurasoek askotan ez dituzte jai egun horiek eta seme-alabak artatu ezinik ibiltzen dira. Lan hori errazagoa izan dadin, Tolosako Udaleko Gazteria eta Kultura sailek elkarlanean Eguberrietarako egitaraua prestatu dute, *Gabonetan haur eta gaztetxoentzat zer?* izenburupean.

Guztien gustuko jarduerak antolatu dituzte, kirola, kultura, aisia,... bateratzen dituztenak. Jakina da haurren artean ere guztiekez dituztela zaletasun berdinak. Hala, erakusketak, antzerkiak, tailerrak, jolasak eta zinema izango dira haientzat aukeran.

Hona hemen zehaztuta urtarrilaren 6ra bitarte izango diren ekitaldi eta jarduerak:

Errota Haur Liburutegian

■ **'Eguberrietan ere liburuak oparitu'.** Liburutegiaren aretoan, gurasoentzat gida (liburu-zerrenda) eta liburuen erakusketa eta Olentzero eta Errege Magoei eskariak egiteko iradokizunak. Urtarrilaren 5era arte, liburutegiaren ordutegian.

■ **'Toy story' tailerra.** Urtarrilaren 2an, ostiralarekin, 12:00etan *Fisika ikasi jostailuen laguntzarekin* izeneko tailerra izango da, Zientzialari Zoroen Laborategiaren eskutik. Mac Sciencek antolatutako tailerra doakoa izango da eta izena liburutegian bertan eman daiteke.

laz ere Zerkausian jarri zuten haur parkea. I. TERRADILLOS

'MEKATXIS MARIATXIS', ETZI LEIDORREN

Poxpolo eta Mokolo pailazoek *Mekatxis Mariatxis* euren azken ikuskizuna aurkeztuko dute etzi, Leidor aretoan, 17:00etan. Bertara joateko sarrerak Servikutxan, Telekutxan, *www.kutxa.net* eta Leidorreko leihatilan daude salgai.

Eskualdeko pailazoen ikuskizun berriak, pasadizo xelebreak eta egoera barregarriak ditu ardatz. Oraingo honetan, gure pailazoek bi lagunen bisita jasoko dute; batetik Mexikotik datorren Mariatxi jatorra, eta bestetik Zikin Mari maltzurra. Magia, kolorea, lilura, sentimenduak, sentsazioak, abesti berriak eta barre eta algarak... ditu ikuskizun berriak.

Hauek dira emanaldiaren partaideak: Iker Galarza, Joseba Usabiaga, Iñaki Odriozola, Dani Gibelalde, Juan Urretabizkaia, Iñigo Alustiza, Iñigo Aseginolaza eta Migel Casi.

Leidor aretoan

■ **Poxpolo eta Mokolo.** Etzi, pailazoen, *Mekatxis Mariatxis* emanaldia, 17:00etan

■ **'Inalanbrikak'.** Hilaren 26an, ostiralarekin, 17:00etan Vaiven Producciones konpainiaren *Inalanbrikak* antzezlana izango da ikusgai. Helburua musikak haur eta gaztetxoen beldurrak sendatzeko ematen dituen aukeratan sakontzea da. Antzezlanak, amonak bere ilobei gaztetan bi lagunekin batera sortu zuen Inalanbrikak musika taldearen lehen kontzertuan izandako buratazio eta gorabeherekin abiatzen da bizitako beldurrak, inbidiak etabar azalduz; ondorioz ikuskizunak 40 eta 50. hamarkadetara egingo du salto orduko estetikan oinarritzen den eszenografia eta jantziak erabiliz baina egungo musika eta erritmoen laguntzaz.

■ **'Hellboy II'.** Hilaren 21ean, igandearekin, zine saioa izango da, 17:00etan.

■ **'Bolt'.** Hilaren 27an, 28an eta 29an zine saioa izango da, 17:00etan.

■ **'Kiriku eta basapiztiak'.** Hilaren 30ean emango dute film hau, 17:00etan.

■ **'Un rockero de pelotas'.** Urtarrilaren 3an eta 4ean, 17:00etatik aurrera.

Zerkausian

■ **Haur parkea.** Hilaren 28tik 31ra, igandetik asteazkenera bitarte, haur parkea atonduko dute Tolosako Zerkausian. Bertan, bideo jolasak, aerogiroa, Bungee Run-a, txapa tailerra, txutometroa, Santa Fe trena, haurrentzako hiru puzgarri eta ludoteka gunea izango dira bertan. Ordutegia 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bitarte izango da eta bertara sartzeko sarrera doakoa izango da.

L Laburrak

Juantxo Agirreren hitzaldia hilaren 29ra atzeratuko da

ALEGIA ● Gaztetxearen XXI. urteurrenaren baitan gaurkorako antolatuta zegoen hitzaldia atzeratuko egin dute. Hala, hilaren 29an, astelehena, izango da. Amaiurko Gazteluaren inguruan ariko da Juantxo Agirre, Aranzadi zientzia elkarteko lehendakaria. Hitzaldiak bi atal izango ditu. Lehenengoari Intxurretik Ausa Gaztelura deitu diote; bigarren atalean, berriz, Amaiurko Gazteluaren indusketa arkeologikoa jorratuko dute. Argazki proiekzioak ere izango dira tartean.

XI. Elkartasun krosaren izen-ematea, zabalik

TOLOSA ● San Silvestreko XI. Elkartasun krosan parte hartu nahi dutenentzat, izen-emate epea zabaldu dute. Aralar Kirolak dendan egin daiteke eta egun berean bertan Zerkausian. Helduek 5 euro ordaindu beharko dute aurrez, eta egunean bertan 8 euro (lehenengo 300entzat kamiseta bat izango da opari). Haurrek, berriz, doakoa dute izen-ematea. San Silvestre lasterketa hilaren 31n izango da Zerkausian, 15:30etik aurrera.

Usabalgo kirol ikastaroetan izena emateko deialdia

TOLOSA ● Usabalgo kiroldegitik jakinarazi dutenez, bigarren hiruhilekorako kirol ikastaroetan izena emateko aukera zabaldu dute. Orain arte bazkide direnek izan dute izena emateko aukera eta gaurtik aurrera bazkide ez direnek ere aukera izango dute ikastaroetan izena emateko, Usabal kiroldegian bertan.

Bertso-eskolen inguruko bilerak egingo dituzte gaur

TOLOSA ● Tolosan helduen bertso-eskolak egiten hasiko dira urtarriletik aurrera. Bertan bertso ikastaroak, hitzaldiak, bertso-afariak... egingo dituzte. Gaur bertso eskola hauetan parte hartu nahi dutenentzat bilera egingo dute lurre elkartean 18:30ean. Halaber, Tolosako hiru ikastetxetara ere eraman nahi dute bertso eskola. Halaber, bertso eskolen inguruan aurrera begira dauden asmoei buruz hitz egiteko herriko elkarteekin bilera egingo dute 19:00etatik aurrera elkartean bertan.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak etabar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 638 944 604 edo 695 708271.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza .info

2008-12-18 Eguraldia

Goiza Arratsaldea Tenperatura Bihar

8° 7°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldekohitza.info.
Webgunea: www.tolosaldekohitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldekohitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo @tolosaldekohitza.info.
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea @tolosaldekohitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea @tolosaldekohitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea @tolosaldekohitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea @tolosaldekohitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosaldea.** Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua Gurea zineman 18:00etan; Alegiko kirol ultur etxean 18:00etan. Bihar, berriz, Adunako elizan 18:00etan.
■ **Tolosa.** Zura eta Sorene Leone (Zurich) musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Deialdiak

■ **Abaltzisketa.** Bihar, San Tomaseko azoka antolatu dute plazan goiz guztian zehar. Animaliak, bainikak, eskulanak, barazkiak, marmeladak... izango dira. Txistorra jateko aukera izango da. Eguraldi txarra eginez gero, pilotalekuan egingo dute.
■ **Berastegi.** Bigarren eskuko materialen azoka Eskola Agenda 21 dela eta, Erretoretxeko lehen solairuan izango da 16:30etik 18:00etara asteguenetan eta asteburuan berriz goizez, 11:30etatik 13:30etara.
■ **Ibarra.** Merkatu Txiki Misiolaria Ekuador, India eta Hondurasen alde 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara Parrokiako lokaletan
■ **Tolosa.** Laskorain Ikastolak Indiako proiektu baten alde eta Saharara material didaktikoa eramateko antolatu duen Merkatu Txikirako gauzak(jostailuak, liburuak, arropa...) eraman daitezke Erretengibelen bulegora 18:00etatik 19:00etara, edo ikastolako bulegoetara.
■ **Tolosa.** Tolosaldea Garatzenen Inmigrazio Sailak literatur lehiaketa antolatu du *Emakumeen kontribuzioa migrazio prozesuetan* gaiari buruz, euskaraz eta gaztelaniaz, 16 urtetik beherakoentzat eta gorakoentzat. Lanak Tolosaldea Garatzenen (San Esteban, Tolosa) entrega daitezke.
■ **Zizurkil.** Bigarren eskuko jostailuen azoka eta txokolatada Pasus plazan 16:30etik 19:30era.

Kirola

■ **Ibarra.** Kirol Astea: 17:30ean Ibarra Racingeko Koldo Alonsoren, Marcos Landaren eta Jon Maritxalarren dardo materialaren erakusketa Ibarrako plazan. Biharkoan, berriz, 17:30ean eskalada ikastaroa 10 urtetik gorako gaztetxoentzat kiroldegian eta 19:30ean *Pirineoetatik Himalayara 1939-1980* dokumentala aurkeztuko du Antxon Iturritzak Kultur Etxean.
■ **Tolosa.** Ordizia-Mantxinbenta lau orduko mendi ibilaldia antolatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 21erako, igandearekin, Murumendi (859 m) eta Txarabeltz (692 m) mendiak igoz. Urteko azkena denez, babarrun jatea ere izango da Añota sagardotegian. Izen-ematea, elkartean (943 652789).
■ **Villabona.** Irumugarrieta (1.427 metro) mendira irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak hilaren 21erako. Izen-ematea, elkartean.

'Lau teilatu'-tatik 'Gaueko izar'-eraino

IKAZTEGIETA ● Ikaztegietan musika ikasten dutenek atzo kontzertua eskaini zuten liburutegian. Lazkao Txiki musika eskolarekin ikasten dute urtean zehar eta atzo Gabonetako kontzertua eskaini zuten. Ez ziren baina, Eguberrietako kantak bakarrik entzun ahal izan (*Gaueko izar, Haur eder baten bila...*) denetik jo baitzuten. Pianoa, trikitixa, gitarra, zeharkako xirula, biolina eta ahotsa entzun ahal izan ziren, eta ikasleek gozatu zuten entzundakoarekin. *Lau teilatu* kanta ezagunak, besteen artean, arrakasta izan zuen, batez ere Garazi Urkiolak eta Sara Urkolak egindako koreografiarengatik. Pena izan zen, Araitz Uria, abeslarietako bat, gaixo zegoelako, Maddi Uria trikitilaria bezala. Beste batean beharko du. N. URBIZU

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Uxue Alberdi bertsolari eta idazlearen literaturari buruzko hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan, Galtzaundi euskara taldeak antolatua.

Erakusketak

■ **Tolosa.** *Basoa* erakusketa izango da ikusgai Aranburu jauregian, Ingurugiro departamentuak antolatuta eta La Caixaren babespean.
■ **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarrak buztin egosian egindako lanak ditu ikusgai Lanbroa tabernan.
■ **Tolosa.** Xabier Salazarren beira lanen erakusketa Fronton kafetegian.
■ **Tolosa.** Dauri Alcala margolari dominikarraren margolanen erakusketa, Ereite elkarteak antolatuta.

Zinema

■ **Tolosa.** *14 kilometros* filma emango dute Leidor aretoan zine-forumean 19:15ean eta 21:45ean.

Antzerkia

■ **Tolosa.** *Por todos tus muertos* antzezlana izango da ikusgai Bonberenean 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak

Urte askoan
Oihan Calahorra Murua (Tolosa). Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

Urte askoan!
Alain. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoak, Estanix eta Iraitzen partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.

agurrak